

VITAL ARTEA

AUKERATUAK 2024 SELECCIONADOS





VITAL ARTEA

LEHIAKETA **2024** CERTAMEN

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

■ VITAL ARTEA · 2024

Arte Lehiaketa · Vital Fundazioa
Certamen de Arte · Fundación Vital

■ Ekoizpena · Producción

Fundación VITAL Fundazioa

■ Data · Fechas

2024ko azaroren 8tik abenduaren 5era arte
Del 8 de noviembre al 5 de diciembre de 2024

■ Argazkiak · Fotografías

© Quintas fotógrafos

■ Testuak · Textos

© Santiago Arcediano
© Dorleta Ortiz de Elguea
© Iñaki Larrimbe
© Rocío López

■ Koordinazioa · Coordinación

ZAS Kultur

■ Katalogoaren diseinu eta maketazioa · Diseño y maquetación de catálogo

Ibon Sáenz de Olazagoitia

■ VITAL ARTEA 2024 • Arabako artearen pultsu ona / El buen pulso del arte alavés	06
Fundación Vital Fundazioa	
■ ALEX ACEVEDO JIMÉNEZ • No hay prisa / Ez dago presarik	10
Rocío López	
■ ITZAL GARCÍA ARGÜELLO • Floemas	16
Dorleta Ortiz de Elguea	
■ ELOÍSA MONToya AZPEITIA • Izenbururik gabe / Sin título	22
Iñaki Larrimbe	
■ ZIGOR URRUTIA REVUELTA • Gauzak egiten ditugun bitartean pentatzeko estrategiak / Estrategias para pensar mientras hacemos cosas	28
Santiago Arcediano Salazar	

■ AUKERATUTAKO LANAK / OBRAS SELECCIONADAS 36

- Félix Alangua Sáez de Ibarra
- Gorka Otsoa de Alda y Angulo
- Juan Ramón Ruiz Hernández
- Oskar Alvarado
- Michel Martínez Vela
- Inés Martínez Sanjurjo
- Lucía Jayo Altamirano
- Andoni Robles
- Pato Furlong
- Irune Unzueta Pintor
- Amaia Hormaeche Mtz. de Zabarte
- Gianluca Festucci
- Lorena Araico
- Antonio Garay Apellaniz
- Manu Aygiun Lauzurica
- Marcos Ramos Gómez
- Josetxu Silgo Hernández
- Virginia Saenz de Ormijana García
- Aranzazu Mtz. de Luna Agirre
- Aitor Laupe
- Meritxell Morais
- Lucio Fernández de Miguel
- Teo Hernando
- Roberto Ruiz Arrieta
- Iratxe Mencía Pérez
- Iñaki Reguero Nieves
- Miren Edurne Elorrieta Muñoz
- Daniel Apolo Gutiérrez Urrutia
- Martín Zurutuza
- Paco San Miguel
- Sara Esparza Llano

VITAL ARTEA 2024

Arabako artearen pultsu ona / El buen pulso del arte alavés

Fundación Vital Fundazioa

Bederatzigarren edizio honetan, Arte Vital lehiaketak Araban talentu artistikoa sustatzeko eta zabaltzeko funtsezko motor gisa finkatzen jarraitzen du. Guztira ehun eta berrogeita hamazazpi proposamen jaso dira, hortaz, agerian geratu da, berriz ere, tokiko artistentzat lehiaketak duen magnetismoa, beren sormen-anitzasuna adierazteko gune bat aurkitzen baitute bertan.

Aurten, Arte Vital lehiaketak berriro berretsi du Araba lurralde dinamikoa eta eferbeszentea dela ekoizpen artistikoari dagokionez, eta aliatu izaten jarraitzen du, sortzen ari diren ahots berriei zein ibilbide zabalagoa duten sortzaileei babesia eta ikusgarritasuna emateko. Gure ekosistema kulturallean, argi dago Arte Vital lehen mailako eragilea dugula.

Zas Kultur kultura kolektiboak Vital Fundazioarekin bat egin du berriro, eta gure sortzaileei laguntzeko ekimenak bultzatzen dituen lankidetza indartu du. Edizio honetan, hautatuen eta sarituen lanen erakusketa Arte eta Lanbide Eskolan egingo da, erakunde horrek Araban sorkuntza ar-

En esta novena edición, el certamen Arte Vital sigue afianzándose como un motor esencial para la promoción y difusión del talento artístico en Álava. Con un total de ciento cincuenta y siete propuestas recibidas, se evidencia nuevamente el magnetismo del certamen para los artistas locales, que encuentran en él un espacio donde expresar su diversidad creativa.

Este año, Arte Vital vuelve a reafirmar que Álava es un territorio dinámico y efervescente en cuanto a producción artística, manteniéndose como un aliado que respalda y da visibilidad tanto a las nuevas voces emergentes como a aquellos creadores con una trayectoria más amplia. En nuestro ecosistema cultural, Arte Vital se nos presenta como un agente de primer orden.

El colectivo cultural Zas Kultur se une nuevamente a la Fundación Vital Fundazioa, reforzando una colaboración que impulsa iniciativas de apoyo a nuestros creadores. En esta edición, la exposición de los seleccionados y galardonados se celebra en la Escuela de Artes y Oficios, un espa-

tistikoaren prestakuntzan eta sustapenean egiten duen lana aldarrikatzeko eta balioesteko aukeratutako gunean. Gure hirian oso preziatua den zentro hori bi mende eta erdiko bitzitzaz ospatzen ari da aurten.

Edizio honetako katalogoak hautatutako eta saritutako hogeita hamabost artisten lanak biltzen ditu, ikuspegi eta proposamen berriak gehituz Arte Vital ere partaide duen sormen-ekosistemari. Gainera, gure komunitate artistikoko figura nabarmenen ekarpenak ere baditu, hala nola Santiago Arcediano, Iñaki Larrimbe, Rocío López eta Dorleta Órtiz de Elguea. Horiek saritutako artisten lanen eta ibilbideen azterketa sakona eta testuinguruan kokatutakoa egin dute.

Katalogo honetako orrialdeetan murgiltzera gonbidatzen zaituztegu, baita Arabako artearen alderdi anitzak aztertzera ere, gure panorama artistikoa osatzen duten adierazpenen aniztasunean barneratzen den ibilbidea. Orrialde bakoitzak leihoa bat irekitzen dio Arabako artearen bizi-pultsuari forma ematen dioten talentuari eta sormenari.

cio escogido para reivindicar y poner en valor la labor de esta institución en la formación y promoción de la creación artística en Álava. Este centro, muy apreciado en nuestra ciudad, celebra este año dos siglos y medio de existencia.

El catálogo de esta edición recoge las obras de los treinta y cinco artistas seleccionados y premiados, sumando nuevas visiones y propuestas al ecosistema creativo del que Arte Vital también forma parte. Además, cuenta con las contribuciones de figuras destacadas de nuestra comunidad artística, como Santiago Arcediano, Iñaki Larrimbe, Rocío López y Dorleta Órtiz de Elguea, quienes aportan un análisis profundo y contextualizado de las obras y trayectorias de los artistas galardonados.

Os invitamos a sumergiros en las páginas de este catálogo y a explorar las múltiples facetas del arte alavés, un recorrido que se adentra en la diversidad de expresiones que componen nuestro panorama artístico. Cada página abre una ventana al talento y la creatividad que dan forma al pulso vital del arte en Álava.





No hay prisa.

SARITUTAKO LANAK OBRAS GALARDONADAS

- Alex Acevedo Jiménez
- Itzal García Argüello
- Eloísa Montoya Azpeitia
- Zigor Urrutia Revuelta

EZ DAGO PRESARIK NO HAY PRISA

Rocío López

Gaur egun, ia zaila da pentsatzea hamazazpi urteko norbaitek irudia eta irudiak hartzeko edo lortzeko egungo gailuak ohitura gaudenaz bestelako eran erabilten dituenik, eta harritu ere egiten gaitu ariketa hori nahita egindakoa izateak. Edukia grabatu, sortu eta argazkiak ateratzea, ondoren sare sozialetara igotzeko, edo lagun talde batekin partekatzeko, horretara ohitura gaude edo horrekin identifikatzen gara, norbait tripode baten gainean jarritako telefono mugikor baten aurrean dantzan edo posatzen ikus-ten dugunean. Gazteez kexatzen gara, “dena grabatzen dutelako”, “dena partekatzen dutelako”, baina ia galtzen ari gara kontzertu batez gozatzeko edo ilunabarria ikusteko gaitasuna, aurretik batez beste hamar aldiz argazkia atera gabe. Hori da guztiok zeharkatzen gaituen errealtitatea, zein belaunalditakoak garen kontuan hartu gabe.



Álexek irudiarekin duen harremana desberdina da, ez du inolako premiarik bere aitaren Sony Handycam 60x-en objektiboaren bidez begiratzeko, ikus-entzunezko pieza irabazleak irauten duen bi minutu eta erdian erakusten du.

Hoy en día, casi cuesta pensar que alguien con diecisiete años haga un uso de la imagen y de los dispositivos actuales de captación u obtención de las mismas, diferente al que estamos acostumbrados, e incluso nos sorprende que este ejercicio se trate de un acto intencionado. Grabar, crear y fotografiar contenido para, posteriormente, subirlo a redes sociales, o compartirlo con un grupo de amigos, es a lo que estamos acostumbrados o identificamos, cuando vemos a alguien bailando o posando delante de un teléfono móvil colocado sobre un trípode. Nos quejamos de los jóvenes, “porque lo graban todo”, “lo comparten todo”, pero, casi que estamos perdiendo la capacidad de disfrutar de un concierto o de apreciar una puesta de sol, sin antes haberlo fotografiado una media de diez veces. Esta es la realidad que nos atraviesa a todos, independientemente de a qué generación pertenezcamos.

La relación de Álex con la imagen es distinta, no tiene ninguna urgencia a la hora de mirar a través del objetivo de la Sony Handycam 60x de su padre, lo demuestra durante

Élan vital

Al mover entre los recuerdos,
al futuro y al presente,
hayos un sentimiento
que te hace volver a impulsarte.



ÉLAN VITAL
Alex Acevedo Jiménez
Ikus-entzunezkoa / Audiovisual
2'44"

Gauza txikiak, zinemak, irakurketak, bideo-jokoek, musikak eta argazkigintzak –praktikatzen dituen beste diziplina artistikoaren artean– inspiratuta, batxilergo artistikoko bigarren mailako ikasketak ikuspegi propio baten sorkuntzarekin uztartzen ditu.

Gainerakok tren bat egunero jarduera errepikakor eta aspergarri gisa hartzen dugun bitartean –iristeko edo irteteko ordutegitik harago arretarik jarri gabe–, bera gai da gainerakooi ihes egiten digun guztia dokumentatzeko, bere tempoa asko errespetatuz, gaitasun amaigabeara duelako egia behatzeko, presente egoteko eta gainerakok parte hartzale izan gaitezen eta une horretan irudi hori geurea balitz bezala bizi dezagun.

Inguruan zuen guztia irudi bihurtzeko ideia hazi batetik abiatuta sortu da pieza, eta irudi horiek, aldi berean, bere pentsaera islatu zezatela. Batxilergo artistikoaren lehenengo ikasturtearen amaieran hasi zen muntaketa mota horiek egiten, eta ikus-entzunezkoen ikasgaiko irakasle batek bultzatu zuen, irakasgai hutsetik haragoko jakinmina piztu baitzion.

Filosofiaren interesaren bitartez, urte horretan bertan, epikureismoaren korrontearekin identifikatzen hasi zen, eta horrek Henri Bergson filosofo eta idiazle frantziarraren figura aurkitzera eraman zuen. Gure solasaldietako batean, artistak esan zidan 1927ko Literaturako Nobel Sariaren irabazlearen esakunea hauxe zela: “*Guztiok dugu bizi-bultzada ba!*”. Aurkeztutako lanaren izenburuak, *Élan Vital*, filosofoaren iritziz, gure pertzepcioarekin –eta zehazkiago,

los dos minutos y medio que dura la pieza audiovisual ganadora. Inspirado por las cosas pequeñas, el cine, la lectura, los videojuegos, la música y la fotografía –entre otras disciplinas artísticas que practica–. Combina sus estudios de segundo curso de bachillerato artístico con la creación de una visión propia.

Mientras los demás cogemos un tren como una actividad diaria, repetitiva y aburrida –sin prestar atención más allá del horario de llegada o salida–, él es capaz de documentar todo aquello que al resto se nos escapa, respetando mucho su propio tempo, porque tiene una capacidad infinita de observar la verdad, de estar presente y de que los demás seamos partícipes y vivamos ese momento como si esa imagen nos perteneciera.

La pieza surge a partir de una idea semilla de convertir en imágenes todo aquello que le rodeaba –y que estas, simultáneamente, pudieran reflejar su manera de pensar–. Es a finales del primer curso de bachillerato artístico cuando comienza a realizar este tipo de montajes, fue impulsado por un profesor de la materia de audiovisuales –quien despertó su inquietud más allá de una mera asignatura–.

A través, también, de su interés por la filosofía, ese mismo año, empieza a identificarse con la corriente del epíureísmo, lo que le llevó a descubrir la figura del filósofo y escritor francés, Henri Bergson. Durante una de nuestras conversaciones, el artista me cuenta que la máxima del ganador del Premio Nobel de Literatura de 1927 es; “*Todos tenemos un impulso vital*”. El título de la obra presentada,

denboraz dugun pertzepzioarekin— zerikusia duen terminoak, testu bat idazteria bultzatu zuen Acevedo, abesti bat aukeratzera, eta grabazioekin muntaia bat egitera. Ordura arte, irudi baten bidez sentimendu bat adierazteko ariketa aske eta jarraitua egiteko izan zitzazkion baliagarri grabazio horiek. Bere lagunekin egiten duen bilera bakoitza, bidaia bakoitza edo aurrez aurre duen ohiko egoera bakoitza, istorio paregabe gisa erakusten du, ikuspuntu hori hartuz, errerealitaterik benetakoarenarekiko hurbilketa gisa.

Bergsonen arabera, errealityea mugimendua da, eta hori azterzeko, izoztu egiten da une bat. Zientziak espacioan kokatutako objektuak azterzen ditu —ezin duelako beste era batera aurrera egin—, konplexua dena bere zatirik simpleenetara murriztuz azterzen du, lengoaiaren bidez definitzen du, eta horrek guztiak errealitye dinamiko baten irudi estatikoak ematen ditu. Estatikoa baino ezin dezake argi eta garbi irudikatu. *Errealitatea ez da, baizik eta etengabe gertatzen da.* Adimenak eta analisiak ez dute balio hura atzemateko, intuizioak baizik. Eta horrela ekin omen zion Alexek proiektu honi, gauzen bilakaera, mugimendua eta iraupena atzemanez —simpleak diruditzen arren—, errealityea definiziork gabe erakutsiz, metafora gisa jarduten duten irudien bidez.

Ez gara istorioak irudi baten bidez kontatzeko praktika erraz batzuk buruz ari, eta are gutxiago, gertukoak, gurea edo egunerokotasunez blai dagoen zerbait kontatzen nahi denean, batzuetan ez baitakigu, ezta nora zuzendu behar dugun gure begirada ere, eta ea begirada hori uste

Élan Vital, un término que para el filósofo, tiene que ver con nuestra percepción —y más concretamente, con nuestra percepción del tiempo—, incita a Acevedo a escribir un texto, a elegir una canción, y a hacer un montaje con las grabaciones, que hasta ahora, le habían servido, como un ejercicio libre y continuado de expresar un sentimiento mediante una imagen. Cada reunión con sus amigos, cada viaje o cada situación habitual a la que se enfrenta, la muestra como una historia única, adoptando este punto de vista, como una aproximación a la realidad más auténtica.

Según Bergson, la realidad es movimiento, y para analizarlo, lo que se hace es congelar un instante. La ciencia estudia, —porque no puede avanzar de otra manera— objetos situados en el espacio, analiza reduciendo lo que es complejo a sus partes más simples, define a través del lenguaje, y todo ello da imágenes estáticas de una realidad que es dinámica. Solo puede representar, claramente, lo estático. *La realidad no es, sino que constantemente, deviene.* Para captarla, no sirve la inteligencia ni el análisis, sino la intuición. Y así es como parece que Álex comenzó este proyecto, captando el devenir, el movimiento y la duración de las cosas —por sencillas que parezcan—, mostrando la realidad sin definición, a través de imágenes que actúan como metáforas.

No estamos hablando de una práctica sencilla la de contar historias a través de una imagen, y menos aún, cuando se trata de narrar algo cercano, nuestro o que está tan empapado de cotidianidad, que a veces no sabemos, ni

genuen bezain librea den. Agian, hemendik aurrera, gure bulkada izango da zalantzan ez jartza nola behatu behar den eta, batez ere, norentzat? edo, nola transmititu?, bai-zik eta amain ematea geure buruari, irudimenezko kamer-a bati eusteko ariketa egitea eta eszena gure eskuekin enkoadratzea.

Élan Vital (Bizi Bultzada)

Bai simplea, ezta?

Hain erreza al da benetan?

Oroitzapenen artean begiratzean,
etorkizunari eta orainari,
sentimendu baten bila zabiltza
berriro bultzarazten zaituena.

Apartekoena nabarmentzen duzu,
Baina, zerk aberasten zaitu gehien?

Barre egiteak,
negar egiteak,
gorrotatzeak,
maitatzeak,
oihu egiteak,
ikustea,
entzuteak,
sentitzeak.

siquiera, hacia donde tenemos que dirigir nuestra mirada, y si esta sigue siendo tan libre como pensábamos. Quizá nuestro impulso, a partir de ahora, sea no cuestionarnos cómo hay que observar y sobre todo, ¿para quién? o ¿cómo transmitirlo?, sino dejarnos llevar, hacer el ejercicio de sostener una cámara imaginaria y encuadrar la escena con nuestras manos.

Élan Vital (Impulso Vital)

Qué simple, ¿verdad?

¿Realmente es tan sencillo?

Al mirar entre los recuerdos,
al futuro y al presente,
buscas un sentimiento
que te hace volver a impulsarte.

Destacas lo más extraordinario,
pero, ¿qué es lo que más te enriquece?

Reír,
llorar,
odiár,
amar,
gritar,
ver,
oír,
sentir.

Konturatzen bazara,
ez da ahalegin handirik egin behar
arreta jarri ahal izan
eta zer merezi duzun jakiteko.

Baina, dena den.
Ez dago presarik.

Egoerak eskertu ditzakezu
arrazoi zehatzik gabe.

Hala eta guztiz ere,
ez dago sentimendu bat baino zintzoagorik.

Ezin da saihestu ...
bizi-bultzada.

Si te das cuenta,
no hace falta esforzarse mucho
para poder fijarte
y saber lo que mereces.

Pero, de todas formas.
No hay prisa.

Puedes agradecer situaciones
sin tener una razón concreta.

A pesar de todo,
no existe nada más sincero que un sentimiento.

No se puede evitar...
un impulso vital.

Álex Acevedo

Álex Acevedo

FLOEMAS

Dorleta Ortiz de Elguea

Forma organiko, bihurri eta goranzkoa, horiaren etaurrearen arteko pigmentu bat duena, hauskortasunez betea bere izaera iragankorrean, Arte Vital 2024 lehiaketan saritutako lanetako bat da. Bere Izenburua, *Floemas*, flor eta poema hitzen arteko alegiazko híbrido baten orogarri izan daiteke, eta hain zuzen ere, izenburu hori ezin hobeto datorkio hain sorkuntza delikatuarti, alabaina, hitz horrek osatzen duena irudikatzen du hitzez hitz, ez gehiago ez gutxiago; izan ere, botanikan bere definizioa hauxe da: “*landare baskularren ehun bizia, substantzia ez-organiakoak bere organismoen alde batetik bestera garriatzen dituena*”. Gure erretinek jasotzen duten eskultura natural sotila organismo txiki horiek osatzen dute, eta *Floemas* saila osatzen duten beste hainbaten arteko bat besterik ez da. Lan performatiko etengabearen emaitza estetikoa dira guztiak, eta lan horretan artea egunerokotasunean erabat desegitea lortu du egileak. Gaur egun, arte ekintza mota hori *ekofeminismoaren* parte bihurtu bada ere, oso aipa-

Una forma orgánica, sinuosa y ascendente, con un pigmento entre amarillo y dorado, cargada de fragilidad en su naturaleza efímera es una de las obras galardonadas en el certamen Arte Vital 2024. Su título, *Floemas*, puede resultar evocador de un híbrido imaginario entre las palabras *flor* y *poema*, y efectivamente, este título le viene como anillo al dedo a tan delicada creación, sin embargo, dicho vocablo representa ni más ni menos lo que la compone de una manera literal, pues en botánica su definición es la de *un tejido vivo de las plantas vasculares que transporta sustancias inorgánicas de una parte a otra de sus organismos*. La sutil escultura natural que captan nuestras retinas está compuesta por estos pequeños organismos y es solo una entre otras tantas que conforman la serie *Floemas*. Todas ellas son el resultado estético de una constante labor performática en la que la autora ha logrado plenamente disolver el arte en lo cotidiano. Aunque este género de acciones artísticas hoy en día han entrado a formar parte



FLOEMAS

Itzal García Argüello

Floemas de mandarinas

120 x 20 x 20 cm

garria da autore hau korronte horren aitzindari instintiboa dela eta bere hurbilketa intuizionkoa eta bitala, adierazpen modu berezi honekiko goiztiarra izatearekin batera, bere pultsioa sailkatzen zaila izan dadila eragiten du. Bestalde, etiketei ihes egiten die Itzalek. 1995ean jada, nutrizioaren eguneroko ekintza, artistarentzat interes handikoa, ekintza performatikoarekin uztartzen ari zen. Ekintza horrek ez du markoa, aipua edo gauzatua izateko testuinguru artistiko instituzional edo alternatiboa bilatzen. Ekintza horrek, itxuraz xumea eta hutsala, aztergai dugun sortzaileak burutua, oso eraldaketa nabarmena jasaten du, eta nolabait, Ready Made delakoak, aurreko mendearen hasieran, suposatu zuen ekintza artistiko iraultzaile hura dakarkio gogora lerro hauek idazten ari denari, arte edo objektu-poema kategoriarra igo baitzituen eguneroko bizitzatik ateratako tresnak.

Pentsamenduaren eta ekintzaren bilakaera naturalean, artean zein artetik kanpo, logikoa da bere garaian urratzailea izan zen kontzeptu bat gainditzen aritzea, baina harri-garria da, era berean, 90eko hamarkadaren erdialdera, sortzaile berezi honek beren energia artistikoa eguneroko kontzientziiaz betetako denboran luzatutako ekintza batean kontzentratu izana. Berak azaltzen duenez, bere obra kontzeptualetik abiatzen da; hala ere, horrek ez dio emaitza

del ecofeminismo, es muy reseñable que esta autora es una precursora intuitiva de esta corriente y su acercamiento intuitivo y vital, a la vez que temprano a esta singular manera de expresión, hace que su pulsión sea de difícil clasificación. Por otra parte, Itzal huye de las etiquetas. Ya en el año 1995, se encontraba aunando el acto cotidiano de la nutrición, de gran interés para la artista, con la acción performática, una acción que no busca un marco, ni una cita, ni un contexto artístico institucional o alternativo para ser ejecutada. Este acto, aparentemente sencillo y trivial, llevado a cabo por la creadora que nos ocupa, sufre una notabilísima transformación y de alguna manera trae a la memoria a esta que escribe aquel acto artístico revolucionario que supuso el *Ready Made*, allá por principios del siglo pasado, que elevó a la categoría de arte o de objetos-poema a utensilios extraídos de la vida cotidiana.

En la evolución natural del pensamiento y la acción, tanto en el arte como fuera de él, es lógico que nos encontremos trascendiendo un concepto que fue transgresor en su momento, pero no deja de sorprendernos que ya a mediados de la década de los 90 esta personal creadora concentrara su energía artística en un acto dilatado en el tiempo pleno de conciencia cotidiana. Como ella misma

estetikoa kentzen, emaitza iragankorra nolabait, horrela adieraz badaiteke; alabaina, bere sorkuntzen zati estetiko eta iragankor hori obraren esentziaren parte da, Itzal bera baita, espreski, galdera baten bidez azaltzen diguna: *Ez al naiz ni, agian, iragankorra?*

Hedapen fisiko eta intelectual hori guztsia, fisiologikoa dela ere esan daiteke, denboraren joanaz duen kontzientziaren irudikapen bat da, bere eguneroko ekintzek uzten dituzten aztarnetan ardaztutako arretari esker iratzarra. Eta eguneroko keinu horietan jartzen du berak balioan alferrik galtzen duguna. Itzalek alde batera uzten ditu floema horiek elikatzen dituzten mandarinen ahosabaian desatseginak diren nerbio horiek, gehienok egiten dugun bezala, baina guk ez bezala, gorde egiten ditu, pilatu egiten ditu, bere imaginario artistikoa sortzeko. Aitoru behar dut hasieran ez nuela bere obra eskulturatzat hartu nahi, termino horretan *Floemeek* beren idiosinkrasia agatik falta duten gogortasun eta irmotasun fisikoa aurkitzen bainuen, iraupenaren aukakoa, inolako bortxarik gabea. Hala ere, egi-learekin berriketaldia izan ondoren, eskulturari eta haren gorputzasunari buruzko nire kontzeptua, nahiko klasikoa eta herdooldua, zuzendu dut. Ez da hitza aldatu behar, baizik eta kanpoko begirada, eta artearen aniztasun amai-

explica, su obra parte de lo conceptual, sin por ello ser despojada de un resultado estético, un resultado en cierto modo efímero, si se puede expresar así; sin embargo, esa parte estética y transitoria de sus creaciones forma parte de la esencia de la obra, pues es la propia Itzal la que expresivamente nos lo explica con una pregunta: ¿No soy yo, acaso, *transitoria*?

Todo este despliegue físico e intelectual, incluso se podría decir que fisiológico, constituye una representación de su conciencia del paso del tiempo, despertada gracias a la atención focalizada en las huellas que sus actos cotidianos dejan. Y es en estos gestos cotidianos en los que ella pone en valor lo que desperdiciamos. Itzal aparta de las mandarinas de las que se alimenta esos floemas, esos nervios que resultan desagradables al paladar, tal y como hacemos la gran mayoría, pero a diferencia de nosotros, los guarda, los acumula para crear su imaginario artístico. He de confesar que yo inicialmente me resistía a denominar a su obra *escultura*, ya que encontraba en este término una dureza y una rotundidad física de la que los *Floemas* carecen por su propia idiosincrasia, opuesta a la duración, carente de toda violencia. No obstante, tras cambiar impresiones con la propia autora, he rectificado mi concepto, un

gabean termino berean mihiztatuta joan daitezkeen adierazpen asko daudela ikusi eta onartu behar da, esanahia biderkatuz eta aberastuz, eta, horrela, lan artistikoa ez ezik, pedagogikoa ere egin daiteke.

Laburbilduz, zalantzak gabe baiezta dezakegu Itzal García eskultore eta artista visualaren ekoizpena etika eta kontzientzia bezalako izate sotilek osatzen dutela, eta haren performanceetan salaketa aktibo eta etengabea aurkitzen dugu. Horregatik, ez gaitu harritzen une honetan *Plastic Food* izeneko proiektuan sartuta ibiltzeak. Proiektu hori dela eta hautatu dute Ikusizko Arteetako Emakumeen Biurtekoan, eta Enaire Fundazioak babesten du. Proiektu horrek egunero hartzen eta arnasten dugun plastiko kopurua eta lurrean iragazten diren nanoplastikoak ditu gai, landareen sustraiet xurgatzentzituzte eta azkanean floemak impregnatzentzituzte. Proiektu hori MAVen (*Mujeres en las Artes Visuales*) aurkeztu zen, Thyssen-Bornemisza Museoan, gainerako hautatuekin batera.

tanto clásico y oxidado, sobre la escultura y su corporeidad. No es la palabra lo que debe cambiar, sino la mirada exterior y descubrir y aceptar que en la diversidad infinita del arte existen muy diversas manifestaciones que pueden ir ensambladas en un mismo término, multiplicando y enriqueciendo su significado y ejerciendo así una labor, no solo puramente artística, sino pedagógica.

En síntesis, podemos afirmar sin lugar a dudas que la producción de la escultora y artista visual Itzal García está conformada por entes tan sutiles como la ética y la conciencia y en sus performances encontramos una denuncia activa y constante, por ello no nos sorprende que en estos momentos se halle inmersa en un proyecto titulado *Plastic Food*, por el que ha sido seleccionada en la Bienal de Mujeres en las Artes Visuales y patrocinada por la Fundación Enaire, que versa sobre la cantidad de plástico que ingerimos e inhalamos diariamente, y sobre los nanoplásticos que se filtran en la tierra, son absorbidos por las raíces de las plantas y acaban impregnando los floemas. Este proyecto fue presentado por la MAV (*Mujeres en las Artes Visuales*) en el Museo Thyssen-Bornemisza junto al resto de seleccionadas.




IZENBURURIK GABE SIN TÍTULO

Iñaki Larrimbe

Artearen historian gehien errotutako praktiketako bat da pintura, eta sormen-askatasunaren esplorazioarekin lotuta egon da beti. Mendeetan zehar, artistek munduari buruz dituzten ikuspegiak adierazteko bitarteko nagusietako bat izan da, bai barrura, bai kanpora begira. Julie Mehretu artista garaikideak dioen bezala: «*Margotzea munduan zerbait jartzeko prozesu bat da, eta, aldi berean, artistari bilatzen ari zenaren isla bat itzultzen dio*», eta horrek pinturak ikusten dena gaintitzeko duen gaitasuna azpimarratzen du, errealtitate berriak aurkitzeko. Keinuen ikuspegitik lantzen denean, askatasun hori areagotu egiten da: pintatzea artistaren eta obraren arteko elkarrizketa isila bihurtzen da, non inprobisazioa eta bat-batekotasuna protagonista diren. Eskeema zurrun edo aldez aurretik ezarri bati jarraitu beharrean, sortzaileak estaltzeko, ezabatzeko eta berregiteko gaitasuna du, obrak trazu bakoitzaren bidez organikoki ebuluzionatzea ahalbidetuz. Askatasun hori, teknika bat ez ezik, introspección-bide bat ere bada, artistari gai sakonetan murgiltzeko aukera ematen diona, hala nola nortasuna, memoria eta

